

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 8/2019 Foru Dekretua, otsailaren 19koa. Onestea Kontseiluaren ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuan, zeinaren bidez basogintzarako laguntzen arauak ezartzen diren, nabaritutako akatsaren zuzenketa eta haien deialdia 2019rako

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuaren bidez, Basogintzarako Laguntza Planaren oinarri arautzaileak onartu ziren; planaren barruan jasotzen dira 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programak “nekazaritza eta basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak” M04.3 azpineurrian eta “inbertsioak basoguneak garatzeko eta basoen bideragarritasuna hobetzeko” M08 neurrian ezarritako laguntza lerroak, betiere 1305/2013 Arautegiak onetsi beharreko dekretu markoak ezarritako mugen barruan, hala nola programa horretan sartzen ez den eta “basoen kontserbazioa” deritzon neurria.

Ondoren, urtean urteko deialdiak onetsi eta, aldi berean, Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 7ko 11/2017 Foru Dekretuak eta martxoaren 19ko 13/2018 Foru Dekretuak oinarri arautzaileak aldatu zituzten, laguntzak errazago aplikatzeko eta oinarri berriak aplikatzekoa zen araudi berrira egokitzeko.

Azkeneko deialdia izapidetzen ari zela inkoherentzia bat hauteman zen oinarri arautzaileen eta Europar Batasunaren C(2017) 3859 Erabakiz onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programaren artean, oinarrietan jasotzen baita basotze jardunak egingo direla 8.1. Basotzea eta baso azalera sortzea neurrian eta 8.4. Basoetan suteek eragindako kalteak konpontzea neurrian; aldiz, programak dio 8.1 neurrian baino ez direla egingo, eta inkoherentzia hori zuzendu beharra dago.

Bestalde, nola nahikoa kreditu dagoen Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018rako gastu aurrekontuen partidetan, urte horretarako laguntzen deialdia onetsi behar da, eta hobe da, kontuan izanda erakunde ordaintzaileak aurreko urteetan eginiko auditoria txostenak oinarri eginiko iradokizuna, kreditu erreserbak egitea deitzen den neurri bakoitzerako eta ez aurrekontu partidaka, baina diru soberakina badago haietakoren batean, diru hori bideratu ahalko da defizitarioak izan daitezkeen gaienerako neurrietarako.

Xedapen orokorrak lantzeko prozedura onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriaren lehenengo b) apartatuarekin bat etorriz, foru dekretu hau bertan jasotzen den prozeduratik salbuetsita geratzen da, xede gisa hutsa zuzentzea daukalako.

Aginduzko txostenak ikusirik Nekazaritza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 7ko 45/2016 Foru Dekretuaren 21.1 artikuluan hautemandako hutsa zuzentzea, zeinak ezartzen baititu M08.4. neurri “Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea” izenekoaren diruz laguntzeko moduko jarduketak eta baldintzak, hura 2015-2020 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapenerako Programaren edukira egokituta. Hona hemen nola idatzita geratuko den:

21.1 Diruz laguntzeko moduko jarduketak eta baldintzak.

Diruz laguntzeko modukoak izango dira:

Baso masak itxuraberritzeko jarduketak, eragindako materialen hondakinak kudeatuz edo mehatzeko baso lanak, sastrakak kentzeko lanak, inausketak edo hobetze mozketak eginez.

Higaduraren eta irristaduren kontra lurrak finkatzeko azpiegiturak konpontzea.

Basoko suteak, izurriteak eta gaixotasunak eta komunikazio ekiptoak zaintzeko instalazioak konpontzea.

Laguntza jasotzeko ezinbesteko baldintza honako hau izango da: agintaritza publiko eskudunak ofizialki aintzatestea sute edo natura hondamendia izan dela eta gertakari horiek edo gaixotasun begetal edo izurritea desagerrarazteko edo hari eusteko neurriek (2009//29/EE zuzentarauaren arabera) gutxienez baso potentzialaren ehuneko 20ko suntsiketa eragin dutela.

Bigarrena. Basogintzarako 2019ko laguntzen deialdia onestea, jarraian zehaztutakoaren arabera:

Laguntza lerroak edo neurriak:

- M08.1. Basotzea eta baso azalerak sortzea.
- M08.3. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea.
- M08.4. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea.
- M08.5. Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak.
- M08.6. Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso potentziala hobetzen inbertitzea.
- M04.3. Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak.
- Basoen kontserbazioa.

Laguntza horien ehuneko 53 LGNEFek finantzatzen du, bi salbuespenekin: M8.1 “Basotzea eta baso azalerak sortzea” lerroaren ehuneko 75 finantzatzen du Europak, eta “Basoen kontserbazioa” izeneko lerroa aldundiaren aurrekontuekin finantzatzen da oso-osorik.

Eskaerak aurkezteko epea:

45 egun natural ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Kreditu erreserbak:

Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko gastu aurrekontuaren barruan jarraian aipatzen diren partiden kontura:

– 40.1.06.45.00.762.90.06 “Mendi publikoetako laguntzak. Deialdi berria”: Kreditua, guztira, 692.114,00 euro (190.000,00 euro 2019an eta 502.114,00 euro 2020an) titulartasun publikoko mendietan aplikatutako honako neurri hauen laguntzak ezartzeko, neurri bakoitzaren zehaztasun eta guzti:

- 270.114,00 euro (100.000,00 euro 2019an eta 170.114,00 euro 2020an) M08.4. “Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea” izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.
- 187.000,00 euro (67.000,00 euro 2019an eta 120.000,00 euro 2020an) M08.3. “Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea” izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.
- 80.000,00 euro 2020an, M08.1. “Basotzea eta baso azalerak sortzea” izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.

- 100.000,00 euro (20.000,00 euro 2019an eta 80.000,00 2020an) M04.3 “Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak” izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.

- 5.000,00 euro (3.000,00 euro 2019an eta 2.000,00 euro 2020an) M08.6 “Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso potentziala hobetzen inbertitzea” izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.

- 50.000,00 euro 2020an, “Basoen kontserbazioa” izeneko neurri nazionalaren laguntzak ezartzeko.

- 40.1.06.45.00.762.90.05 “Mugaketak eta mugarritzeak. Deialdi berria”: Kreditua, guztira, 239.968,00 euro (43.152,00 euro 2019an, 103.275,00 euro 2020an eta 93.541,00 euro 2021ean) M08.5 “Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak” izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.

- 40.1.06.45.00.780.00.07 “Mendi pribatuetarako dirulaguntzak Deialdi berria”: Kreditua, guztira, 290.000,00 euro (40.000,00 euro 2019an eta 250.000,00 euro 2020an) titulartasun partikularreko mendietan aplikatutako honako neurri hauen laguntzak ezartzeko, neurri bakoitzaren zehaztasun eta guzti:

- 150.000,00 euro (40.000,00 euro 2019an eta 110.000,00 euro 2020an) M08.4. “Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea” izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.

- 80.000,00 euro 2020an, M08.3. “Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea” izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.

- 55.000,00 euro 2020an, M08.1. “Basotzea eta baso azalerak sortzea” izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.

- 5.000,00 euro 2020an M08.6 “Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea edo baso potentziala hobetzen inbertitzea” izeneko neurriaren laguntzak ezartzeko.

Kreditu horiek zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango dira, urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita aurrekontu partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, neurri bakoitzerako hasieran erreserbatutakoren adina izango dira.

Neurriaren batean kreditu soberakina egonez gero, beste neurrietara bideratu ahalko da premia izanez gero, kontuan izanda zein lehentasun ordena ezarri den oinarri arautzaileen 9. artikuluan.

Hirugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, honako oinarri arautzaile hauen kontra nahiz deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren errekurso guztiak ebazteko.

Laugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2019ko otsailaren 19a

Diputatu nagusia
RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE